



Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

# Zer abantaila dakartza gure inguruko ekosistemen kontserbazioak?

## GARAPENA:

Biodibertsitatea eta natura-baliabideak ezinbestekoak dira gizakiaren ongizateari eta garapen sozialari eta ekonomikoari eusteko. Hortaz, jakin behar genuke biodibertsitateari eustea nahitaezkoa dela oraingo eta geroko belaunaldien iraupena bermatzeko, eta ohartu beharko genuke espezie eta ekosistemen galera-tasa kezagarria dugula. Espezie eta ekosistema horiek hainbat onura ekartzen dizkigute: ekosistemen zerbitzuak. Eta zer dira ekosistemen zerbitzuak? Zer zerbitzu mota daude?

Ekosistemen zerbitzuak ekosistemetatik zuzenean edo zeharka jasotzen ditugun onurak dira: elikagaiak, ur geza, karbono-ura, uholdeen kontrola, klimaren erregulazioa, erosioaren kontrola eta aisialdiko jarduerak, besteak beste (ikus "Gaia zabaltzen" atala).

## Proposatutako jarduerak:

1. Aipatu ditugun ekosistemen zerbitzuetan sakontzeko eta ekosistemen kontserbazioaren garrantziaz ohartzeko, **aipatu gure inguruko ekosistematik lortu ditzakegun hiru zerbitzu eta azaldu zer etekin ateratzen diegun abantaila horiei.**

Taula osatzeko, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean informazio osagarria aurkituko duzu: [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/es/contenidos/faq/servicios\\_ecosistemas/es\\_natura/indice.html](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-u95/es/contenidos/faq/servicios_ecosistemas/es_natura/indice.html)

Zer zerbitzu ematen dizkigu?

Nola lortzen da zerbitzu hori?

### Basoak



Klimaren erregulazioa

*Basoak karbono-hustuleku garrantzitsuenetako bat dira. Haien landarediak eta zoruak karbono ugari gordetzen dute. Era berean, tenperatura-jaitziera bermatu eta hezetasunari eusten diote.*

### Soroak eta uztak



### Aintzirak, ibaiak eta urtegiak



## Helburuak:

- Ekosistemek ematen dizkiguten askotariko zerbitzuak ezagutu eta aztertzea.
- Ekosistemen degradazioak izan ditzakeen ondorio larrien kontzientzia hartzea.

## Beharrezko materialak:

- Ihitza, Interneterako konexioa duen ordenagailua.


## Konpetentziak:

- Zientzia-, teknologia- eta osasuna- kultura.
- Ikasten ikasi.
- Hizkuntza-komunikazioa.
- Informazioa tratatzea eta teknologia digitala erabili.
- Gizartea eta herritartasuna.
- Norberaren autonomia eta ekimena.

Zer zerbitzu ematen dizkigu?

Nola lortzen da zerbitzu hori?

### Hezeguneak



### Itsasertzeko habitatak

(hondartzak, dunak, labarrak)



### Harkaiztegiak



Jarduera amaitutakoan, eztabaidatu taldeka ekosistemen kontserbazioaren garrantziaz eta horien degradazioak izan litzakeen ondorioez.

ITURRIA: Kontsultatutako webguneak:

- <http://www.ecomilenio.es/>
- Ingurumen eta Lurralde Politika Saila <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-579/es/>

**Ekosistemak zaindu beharreko natura-ondasunak dira**